

Kultur agenda

Urtarrilak 30 ostirala
Otsailak 8 Igandea



Ari Kandelan

Ari hip hop kantari gazteak kontzertua eskainiko du Anti-
guako Kandelaren aretoan ostiralean, urtarrilak 30,
23.30ean. Arianna Puella dominikarrak arrakasta handiko
bi disko —"Gancho perfecto" eta "Fecha"— kaleratu ditu.
Fermin Muguruza musikariarekin ere kolaboratu izan du
"In-komunikazioa" diskoan. Hip hop musikak
azken sasoiaren eman duen abeslaririk interesga-
rrienetakoa da Ari.

Mal de Ojo Aitza Kultur etxean

Otsailaren 6an, ostirala, Mal de Ojo eta So-
niquete musika taldeak Aitza kultur etxe-
an afito dira, 21.00etan. Rumba estiloko
ardatz harturik, musika erretimo beroak
uztartzeko dituzte Mal de Ojo taldeak. Duela
ez asko "Mestijaja" diskoa kaleratu zuten
donostiarrek. Eus-
karaz
abesten
dituzte,
gainera,
kanturik
gehie-
nak.



Scorsesereren zinema Amara Berrin

Amara Berrin bideo foru-
mak Martin Scorsese zine-
magileari buruzko zikloa es-
kainiko du otsailaren. Bertan
"Taxi Driver" ilunaren egile-
aren filmik esanguratsuenak
izango dira ikusgai. Astele-
hen honetan, otsailak 2,
"Toro Salvaje" filma eskai-
niko dute Amara Berrin Ernest
Lluch kultur etxean,
18.45etan. Jake La Motta
boxeolariaren bizipen gordi-
nak ditu ardatz filmak.



Sidonie Antzoki Zaharrean



Sidonie eta Sunday Drivers taldeek kontzertua eskainiko
dute ostiralean, otsailak 6, Antzoki Zaharrean, 20.00etan.
Kataluniako musika independentean egun aurki daitezkeen
talderik erakargarrienetakoa dugu Sidonie. Psikodelia, pop
koloretsua, funky-a eta musika elektronikoa ere jinttasunez
nahasten ditu. "Shell Kids" azken diskoa aurkeztuko du
Sidonie taldeak Antzoki Zaharrean.